

13/2022 EBAZPENA, urtarrilaren 12ko, Donostialdeko ESIko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Donostialdeko ESIko Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako Zerbitzu Sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den.

AURREKARIAK

Donostialdeko ESIko zuzendari gerentearen irailaren 2ko 1158/2021 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Donostialdeko ESIko Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako Zerbitzu Sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2021eko abenduaren 9ko EHAA 245 zk. eta 2021eko abenduaren 16ko BOE 300 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2022ko urtarrilaren 7an amaitu zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Donostialdeko ESIko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoa adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219 zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez.

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.– Donostialdeko ESIko Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako Zerbitzu Sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina).

Bigarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Donostialdeko ESIko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, Ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Donostian, 2022ko urtarrilaren 12an

Donostialdeko ESIko zuzendari gerentea.

Langileen zuzendaria

53/2019 Ebazpena, urtarrilaren 24koa

LANGILEEN ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN DE PERSONAS

Esther LITAGO SOLA



Osakidetza

DONOSTIALDEA
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
DONOSTIALDEA

1. ERANSKINA

DONOSTIALDEKO ESIKO KIRURGIA ORTOPEDIKOKO ETA TRAUMATOLOGIAKO ZERBITZU SANITARIOKO BURUA IZENENKO LANPOSTUA

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- Ana LERSUNDI ARTAMENDI

Baztertuak:

- Inor ez

Donostian, 2022ko urtarrilaren 12an



Osakidetza

**DONOSTIALDEA ESI
OSI DONOSTIALDEA**

**LANGILEEN ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN DE PERSONAS**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

OSASUNBASA
DEPARTAMENTO DE SALUD